

» TELEGRAMA

Carvin Jones musikari estatubatuarra Bilboko Satellite T aretoan izango da ekainaren 24an: blues doinuen zaleentzat ezinbesteko zita *STOP* Donostiako Tabakalerak **Martin Rejtman** zine zuzendari argentinarrari eskainitako zikloaren ondoren, zuzendariaren bisita izango du ekainaren 24an, 19:00etatik aurrera *STOP* **Donibane-Ziburuko Gaztetxeak** 25 urte bete dituela-eta, egun osoko egitaraua prestatu dute ekainaren 25erako: aperitifa, bazkaria, arratsalde animatua eta kontzertu sorta gauerako *STOP*

» DISKOA

Delinkuentzia bazterrean, biziraun eta borrokan



Iker Barandiaran



Larga vida al infierno

RAT-ZINGER

Rock Estatal Records, 2016

Rat-Zinger talde bilbotarra.



“Islamismoak gurea egingo du, gu ezabatu, bere egia bakarraren azpian zapaldu eta ezabatu nahi gaitu. Horregatik, lehenbailehen berarekin bukatu behar dugu, eta horretarako gure muga guztiak itxi behar ditugu, gu babesten gaituzten hesietan zanpatuta eta gu inguratzen gaituzten itsasoetan itota hil daitezen, madarikatuak!”

Hori guztia jaio ginen unetik gaur egunera arte ezarri dizkiguten gezurretako beste bat da. Izan ere, oligarkia kristauaren balioen azpian alienatuak eta makurtuak gaude guztiok. Puteatutako bizitza miserablearen betiko kontua, guzti batzuk gure kontu bizi daitezten. Bitartean kapitalismo erasokorrenaren erakusleioekin itsututa aske garela uste dugu, erosi nahiko genukeena aukeratzeko gai garelako, eskubide guztiak lapurtzen dizkiguten bitartean.

Rat-zinger taldeak irudikatzen du sistema zikin honetaz nazkatuta dagoen kalea, jende soila, batzuen ustez zaborra dena eta prest dagoena bere bizitzari akabera erailtzen emateko, delinkuentziaren bazterretan biziraun eta borrokatzeko hautua egin dutenak. Bai, gero eta gehiago dira, eta are eta arriskutsuagoak.

14 bolbora eztanda, barrenak leheretzeko gai direnak, arnasa ere eteten dutenak, dagoeneko ez dagoelako ez denborarik ezta munizio nahikorik so-

tanadun pederasta zein inpunitate osoz aritzen diren eskrupulu gabeko patrioiak zigortzeko.

Sofistikazioendako denbora ere pasa da eta disko honetan Bilboko piztiak ia erabat alboratu du aurreko laneko ukitu metaleroa, bizitasun handiko hardcore-punk-rocka lantzeko, azkarrena eta mingarriena. Beraien kantuetan bat egiten dute RIP taldearen *Antimilitar* gogora ekartzen duten erritmoek, punk-rock gitarroak, neurririk gabeko punteatzeek, rock-and-roll menderaezinak, Motörhead zainetan, jakina, eta kaleko-rock sinesgarri eta *navajeroenak*, soilik gutxi batzuek –kalean bizi direnek–, bere esentzian transmititzen dakitena.

Hiru dimentsioko formatu oso bitxian kaleratutako lan honetan Kaos Urbano taldekoen laguntza izan dute, *Unete al terror* piezan lur azpiko Madril eta Bilbo anaituz. Porco Bravo taldeko Manuk ahotsak sartu ditu *No soy Nazareth* rock-and-roll azkarrean, jasotako ostia guztien oka eginez. *Kaos en mi* autobiografikoan Non Servium taldeko lagunek esku hartu dute. Eta *Renegados* piezako hitzak idazteaz gain, mikroa hartuta Txarly Usherrek abestu du (La Casa Usher, Los Carniceros del Norte, Radio Crimen eta beste talde askotan ibilia).

Dagoeneko aita santu bat akabatu dute; gorrotoz armatuak daude eta inork ez ditu gelditu behar, ez aita santuak ezta haren sasi-amak ere. Bota zure burua albo batera edo armaz hornitu beraiekin estoldatan. ■